



58

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUAREN ETA ARRASATEKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Donostia, 2016ko irailaren 26a

Alde batetik, Denis Itxaso González jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua. Helbidea: Gipuzkoa plaza z. g., 20004-Donostia, eta IFK: P2000000F.

Bestetik, Maria Ubarretxena Cid andrea, Arrasateko alkatea. Helbidea: Herriko plaza 1 20500-Arrasate eta IFK: P2005900B.

Bi ordezkariak behar adinako legezko ahalmena aitortzen diote elkarri hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako adierazpen hauek egiten dituzte:

### AZALPENAK

I.- Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko jarduera arloan, eskumenak banatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen artean. Beraz, behar-beharrezkoa da horien guztien artean koordinatzen saiatzea.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiko nahiz udaletako politika publikoen eremuan, indartzen joan dira, azken hiru hamarkadetan, hainbat esku-hartze eta zerbitzu, bilatzen dutenak osagarriak izatea haur, nerabe eta gazteei politika eta sistema orokorretatik eskaintzen zaien arretarekin, eta arreta fokalizatzen dutenak haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan, espezifikoki, saiatzen baitira pertsonen modu espezifikoko batean laguntzen bizitzako aldi horietan.

III.- Gizarte konplexu eta aldakor honetan, familiako eta komunitateko loturak gero eta hauskorragoak dira; norberaren biografia eraikitzeko aukerak nahiz gizarte bazterketarako arriskuak biderkatzen ari dira; eta aniztasun aberasgarriko eta gizarte gatazkako ardatz berriak sortzen ari dira. Halako gizarte batean, ez dirudi zalantza handirik dagoenik administrazio publikoek hurbiletik eragiteko lanabesak prestatu behar dituztela, haur, nerabe eta gazteen esku jartzeko, abiapuntutzat harturik gako hauek: laguntza, aurrea hartzea, dinamizazioa, ikaskuntza, parte hartzea, loturak eraikitzea, eskubide berdintasuna, eta, hitz batean, sustapena.

IV.- Gipuzkoako udalek eta Foru Aldundiak elkarren beharra izan dute haur eta gazteen sustapen arloan dituzten eskumenak erabiltzerakoan, eta elkarri lagundu izan diote. Hala, hainbat dinamika sortu dituzte, eta horiek lortu duten heldutasun puntuari esker, egin daiteke, eta komeni da haiek Haur eta Gazteen Sustapen Sistema gisa formalizatzea (Gaztematika).

V.- Haur eta Gazteen Sustapen Sistema da multzo artikulatu eta egonkor bat, erantzukizun publikoko eta gizarte partaidetzako egiturez eta jarduketaz osatua, eta Gipuzkoako udal administrazioek eta Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmen baten bitartez eratua.

VI.- Ez dago hierarkia aginterik Sistemako kideen artean, ez eta Sistemak inposatutako betebeharratsailerik ere, baizik eta dinamika bat lankidetzan aritzeko eta elkarri laguntzeko, eta eginkizunak eta



erantzukizunak banatzeko. Kontua da etorkizun partekatu bat eskaintzea, eta etorkizun horretara hurbiltzen joatea, kasu bakoitzean arrazoizkoa den erritmoan.

VII.- Orain arte azaldutakoaren barruan kokatzen da lankidetzaren hitzarmen hau, hemen bildu diren bi erakundeen artekoa, klausula hauen arabera arautuko dena,

## BALDINTZAK

**LEHENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak eta Arrasateko Udalak elkarlanean aritzea erabaki dute 2016. urtean zehar, udal horretan Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema garatzeko (Udalerrian hobekuntza proiektuak garatzeko lankidetzaren hitzarmen hau, Nerabe eta Gazteak Sustatzeko Sistemaren sartutako zerbitzuen kalitatea areagotzeko xedearekin).

**BIGARRENA.-** Hitzarmen honen xedeari dagokionez, bi alderdiek honako betebeharrak hartzen dituzten bere gain:

### Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak:

- Lankidetzaren egitasmoa aurrera eramateko Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko aholkularitza zerbitzua eskainiko du.
- 14.678,88 euroko diru laguntza ematea, 1.0220.200.461.01.01 2016 aurrekontu sailaren kargura, hitzarmen honen eranskinean helburu orokor gisa adierazitako atalaren arabera garatutako jardueretarako. Helburu zehatzak, ekintzak eta konpromiso adierazleak ere, eranskin horretan jasota daude.

### Arrasateko Udala

- Jarduera plana garatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko materialak jarriko ditu.
- Haur, nerabe eta gazteen alorrean hobekuntza egitasmo bat diseinatu eta abian jarri.
- Diru laguntza emateko arrazoia oinarritzen duten haur eta gazteentzako jarduerak burutuko ditu haurren eta gazteen sustapenerako Sistema sendotzeko.
- "Gaztesare" intranetean herriari buruzko datuak sartu eta eguneratuak edukitzeaz arduratuko da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko titularrarekin batera publikoan aurkeztea lankidetzaren akordio honen xehetasunak eta irismena, bi aldeek adosten dituzten termino eta formatuetan. Bermatuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko beste kide batzuk ere bertan izateko aukerari eragin gabe, departamentuko ordezkari batek foru erakundearen ordezkari izatea programa honen sustapenerako ekintza formaletan. Orobat aztertuko da lankidetzaren do proiektuaren beraren emaitzaren balantze publiko bat egiteko aukera, amaitzen denean.
- Haur, nerabe eta gazteen alorreko diru laguntzak emateko oinarri erregulatuaz, 2016ko martxoaren 8ko Diputatuen Kontseiluak onartutakoetan, aurreikusitako obligazioak betetzea.



**HIRUGARRENA.-** Foru Aldundiak txanda bakarrean ordainduko du dagokion diru laguntza, erakundeak hitzarmen honen xede diren jardueren gastuak justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**LAUGARRENA.-** Jarraipen batzorde bat eratu daiteke udaleko hiru ordezkari eta Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko beste hiruk osatuta.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen honek aurreikusten ez duen guztian, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historiko diru laguntzenak, haur, nerabe eta gazteen alorreko diru laguntzak emateko oinarri erregulatuak, 2016ko martxoaren 8ko Diputatuen Kontseiluak onartutakoek, eta diru laguntzen alorrean indarrean dagoen gainerako araudiak ezarritakoari egokituko zaio diru laguntza.


Eta ados direla adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute bi alderdiek, ale bikoiztuan baina eragin bakarrerako, idazpuruan aipaturiko toki eta egunean.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Sin.: Denis Itxaso González

Arrasateko Udala

Sin.: Maria Ubarretxena Cid







ERANSKINA			
<b>2) Udalerrian hobekuntza proiektuak garatzeko lankidetzak, Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteak Sustatzeko Sistemak sartutako zerbitzuen kalitatea areagotzeko xedearekin</b>			
Udalerria	ARRASATE	Tipologia	10.001-150.000
Aurrekontua	550.000,00 euro	%	2,66
Lankidetzak mota	Haur eta Gazteen Sustapen Sistemak hobekuntza bat garatu		
Diru laguntzaren proposamena	14.678,88 euro		

#### TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK

2006tik ari gara Arrasateko udalarekin hobekuntzak garatzeko lankidetzan, 2016an ere mota horretako lankidetzarekin jarraitzea izango litzateke asmoa.

#### HELBURU OROKORRA

Gaztematikaren 2015-16 planaren baitan jorrotutako bi gairen inguruan zehaztu da aurtengo elkarlana: batetik, Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuak kontratatuzko plegu berriak lantzeko aholkularitza eta elkarlana, eta bestetik, Foru Araua jorrotzeko lantaldean parte hartzea.

#### HELBURU ZEHATZAK

- Haurrentzako eta Nerabeentzako Zerbitzuen inguruko hausnarketa egin
- Zerbitzuetako langileen profilak aztertzea
- Zerbitzu biak egungo errealitate eta beharretara egokitzea
- Guraso-tutoreei eskaintako arreta hobetzea
- Foru Araua jorrotzeko lantaldean teknikariak parte hartzea

EKINTZAK		ADIERAZLEAK
1	Zerbitzuak aztertzea: lantaldearekin, erabiltzaileekin eta batzordean.	Bileren egutegia
2	Auzoetako eskaintzaren inguruko hausnarketa egin	Hausnarketa txostena
3	Zerbitzuetako hezitzaileen profilak aztertu	Lantaldearen egonkortasuna
4	Zerbitzuak egokitzea egungo beharretara	Egokitzapenak pleguetan jasotzea
5	Haurrentzako zerbitzuaren eskaintza zabaltzea guraso-tutoreek parte har dezaten	Guraso-tutoreak hurrekin jolasteko egunak zehaztu
6	Nerabeentzako zerbitzua guraso-tutoreei ezagutzera ematea	Guraso-tutoreei zuzendutako informazio saioak
7	Foru Araua jorrotzeko lantaldean parte hartzea	Bileretara asistentzia

